



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 30a

71. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—11-26/LEY-00006. Foru-lege proiektua, terrorismoaren biktimak errekonozitu eta haiei erreparazioa ematekoa (2. or.).

B SAILA:

**Foru-lege proposamenak:**

—11-26/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (16. or.).

---

A saila:  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-26/LEY-00006. Foru-lege proiektua, terrorismoaren biktimak errekonozitu eta haiei erreparazioa ematekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2026ko ekainaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, terrorismoaren biktimak errekonozitu eta haiei erreparazioa emateko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Xedatzea terrorismoaren biktimak errekonozitu eta haiei erreparazioa emateko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2026ko irailaren 15eko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru-lege proiektua, terrorismoaren biktimak errekonozitu eta haiei erreparazioa ematekoa**

### ZIOEN AZALPENA

Terrorismoa da munduko gaitzik handienetako bat, biktimei eta haien senideei atsekabe izugarria eragiten baitie; atsekabe hori gizarteak berak ere jasaten du, eta horren aurrean ez dago biktimei elkartasuna eta errekonozimendua erakustea baino; atsekabe hori erailketen bidez azaltzen da, baina baita mehatxuen, bahiketen, estortsioen eta xantaien bidez ere; fanatikoek, izan ere, horiek denak baliatzen dituzte, beren helburuak erdietsiko dituztela oker sinetsita. Ildo horretan, terrorismoaren ondorioz, indarkeriazko beste delitu batzuetan baino gehiago, pertsonak gauza bilakatzen dira, gizatasuna kentzen ahalegintzen baita.

Nafarroan, bereziki ETak hamarkada askotan gauzatutakoak, milaka herritarren bizitza eta askatasuna suntsitu zituen. Terrorismoak eragotzi zuen gizarte baketsu baterako bidea abiaraztea, herritar gehienek bizitza, giza duintasuna eta gizarte askea defendatzen zuten arren. Testuinguru horretan onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak 9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa, eta, lege-mailako lehen testu horren bidez, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta laguntza emateko esparru bat diseinatu nahi izan zen.

Denbora iragan da, baina botere publikoak ohartu dira gertaturikoaren gaineko memoria gorde beharra dagoela, berriz halakorik ez gertatzeko eta biktimagileek eragindako min handia ez ahazteko. Gainera, beharrezkotzat jotzen da terrorismoaren biktimak indartzea, gure sistema demokratikorako erreferentzia etikoa baitira.

Gure aldean egotea merezi duen horren oroime-nari bizirik eustea da foru-lege honen helburu nagusia. Terrorismoak biktimei eragindako izua eta egin-dako kaltea gogoraraztea, eta banaka eta sozialki erreparazioa jasotzeko eskubidea, memoria, duinta-sun, justizia eta egiaren printzipioen arabera.

Azken urteetan, aurrerapauso nabarmenak eman dira gure historiako zenbait gertakari tragiko-tako biktimei erreparazioa eta errekonozimendua ematearen arloan, motibazio politikoko indarkeria-eta terrorismo-ekintzei dagokienez.

Nazioartean, 1948ko Giza Eskubideen Adie-razpena gogoratu behar dugu, ondorengo gara-pen guztiak barne (giza eskubideen nazioarteko itunak, adibidez). Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda ere aipatu behar dugu; zehazki, «16. hel-burua: Bakea, justizia eta erakunde sendoak», zeinaren helburua baita gizarte bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea. Gure ustez, helburu hori ezin izanen da lortu baldin eta biktimak direla-eta beharrezkoa den memoria-, errekonozimendu-eta erreparazio-jardun bat egiten ez bada gataz-ka-egoerak gertatu diren tokietan.

Halaber, NBEk zenbait gomendio-tresna garatu ditu, hala nola Egirako Eskubideari buruzko 9/11 Ebazpena; ebazpen horretan garrantzia aitortzen zaio egirako eskubidea errespetatu eta bermatzeari, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko.

Estatuko legegintzaren esparruan, azpimarrat-zekoa da Terrorismoaren Biktimak Errekonozit-zeko eta haien Babes Integrala Emateko irailaren 22ko 29/2011 Legea, babes sozial, ekonomiko eta politikoa eman zielako erakunde terroristen indar-keriak eragindako biktimei; erakunde horien arte-an ETA, GAL eta BVE daude, besteak beste. Ira-ganean, biktima horiek ez zuten errekonozimendu sozial beharrezkoa jaso, eta kasu honetan, haien memoriari duintasuna eman beharra zegoen.

Foru-lege horren kezka nagusia da ETArek biktimei aitortzea egitea eta babesa ematea, gu-txietsi gabe “beste errealtate tamalgari batzuk, hala nola nazioarteko terrorismoa, ez eta ahantzi ere gaur egun zorionez desagertu diren indarkeria terroristaren beste egoera batzuk, esaterako GAL taldearena eta eskuin muturreko talde terroristena, eta halaxe dago jasota foru-lege honen xedean”.

Bada, 15 urte igaro dira lege hori onetsi zene-tik, eta, zorionez, GALen eta eskuin muturraren terrorismoaz gain, ETArek ere desagertu da. Hala ere, testuinguru berri honetan egia da, hala-ber, terrorismoaren biktimek jasaten duten min sakona eta behar duten arreta erabat indarrean

daudela oraindik, eta erakunde publikoen inplika-zioa eta gizarte osoaren aitortzea merezi dutela.

Igarotako denbora eta errealtate sozial berria kontuan hartuta, komeni da arlo horretako foru-legeria ebaluatzea eta hobetzeko neurriak hartzea.

Nazioarteko, Estatuko eta Foru Komunitateko arau-multzo horren barruan, beharrezkotzat jotzen da Terrorismoaren Biktimei buruzko Foru Lege berri bat onestea, horrela zigilatuzko biktimekiko konpro-misoa, biktimen sufrimenduari izena jarriz, bai eta Nafarroan biktimen ordezkari diren elkarteekiko konpromisoa ere, kolektiboari eta familiei lagun-tzeko funtsezko tresna diren aldetik. Lege honek segurtasuna emanen du, aurreko legea interpreta-tzeko eta aplikatzeko arazoan aurrean. Ildo horret-an, eskubideen kalte-ordainen kapitulua zabaldu da terrorismoaren biktima guztiak hartzeko.

Terrorismoaren biktimei erreparazioa eta erre-konozimendua emateko sistema ez litzateke osoa izanen, etorkizunera begira bakarrik aurreikusiko balitz. Horregatik, legeak ezartzen du haren xeda-penak, kalte materialei buruzkoak izan ezik, 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako gertaerei aplika-tzen ahalko zaizkiela, denboraren ikuspuntutik, Estatuko legerian xedatutakoarekin bat etorritz. Atzeraeraginezko efikazia hori baliatzen ahalko dute lege honen babesean aitortutako laguntzarik jaso ezin izan dutenek, aurreko legeriak aukera hori ez emateagatik.

Halaber, legeak laguntza eta neurri berriak jasotzen ditu terrorismoaren biktimeentzat eta bikti-marekin ahaidetasun-, bizikidetz- edo mendeko-tasun-harremana duten pertsonentzat. Besteak beste, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko aukera hobetzen da.

Azken batean, sistema integral bat eratu nahi da ekintza terroristek eragindako kalteak errepara-tzeko, biktimek eta haien familiek Administrazioa-ren babesa senti dezaten, bai maila ekonomikoan, bai laguntza-mailan.

Gainera, foru-lege honek agerian uzten du Nafarroako gizarteak gaitzesten dituela terroris-moa —bateraezina baita bizikidetz demokratiko-arekin— eta indarkeriaren erabilera edozein ideia edo proiektu defendatzeko, eta biktimen eskubide-en defentsaren alde egiten duela argiki. Errealtate hori aitortzeko egiten ari diren urrats positiboak balioetsi arren, gaur egun oraindik ere guztiz beharrezkoa da indarkeria erabili zutenek edo indarkeriari babes sozial eta politikoa eman zioten-ek gizartearen gehiengo zabalarekin bat egitea, eta publikoki onartzea ETArek indarkeria terrorista bidegabekoa eta legez kontrakoa izan zela.

Horrela, biktimak oroitzeko eta errekonozitzeko ekintza publikoak sustatuko dira, ikuspegi inklusibo batetik. Beraz, terrorismoaren biktima diren emakumeak ikusaraziko dira, eta sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartuko dira. Halaber, haiei buruzko azterketa, ezagutza eta ikerketa sustatuko da, eta martxoaren 11n, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, errekonozimendua eta erreparazioa emanen zaizkie biktima horiei.

Zalantzarik gabe, terrorismoaren biktimen interesak ordezkatzen eta defendatzen dituzten elkarre, fundazio, entitate eta erakundeek lan nabarmena egin dute denbora honetan guztian, eta, beraz, lege honek haien lana ere aitortu nahi du publikoki. Ildo horretan, Parte-Hartze Kontseilu bat eratzeari proposatzen da, biktimei eta haien elkartei ahotsa emateko.

Gainera, ezinbestekotzat jotzen da terrorismoaren biktimen testigantzak belaunaldi berriei helaraztea, terrorismoaren izugarrikeria ezagutzea, eta biktimekiko empatia sustatzeko. Hortaz, neurri hori txertatuko da Nafarroako hezkuntza-curriculumean sartutako unitate didaktikoetan eta dagoeneko abian jarritako hezkuntza-programetan, hala nola Memoria duten eta Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten Eskolak programan edo Eskutik-De la Mano izenekoan, zeinak ikasgeletan biktima hezitzaileak gotea sustatzen baitu.

Azken batean, lege honekin, tresna bat diseinatu dugu guztiz plurala, demokratikoa eta baketsua izan nahi duen Nafarroako gizarteak helburu horiek bete ditzan. Indarkeria politikoaren iragana gainditzearen alde egiten dugu. Ez dugu nahi, izan ere inoiz ez dugu nahi izan, gau luze eta ilun batean biziraun; nahi dugu, beti nahi izan dugun bezala, zeru urdin eta argitsu baten pean eta bakean bizi.

Foru-lege hau honela dago egituratuta: zioen azalpena; 43 artikulua, zortzi titulutan banatuta; lau xedapen gehigarri; xedapen indargabetzaile bat, eta lau azken xedapen. Atariko tituluak biltzen dira gainerako artikulua funtsatzen dituzten xedapen orokorrak. Biktimentzako laguntzen zerrenda orokorra ezartzen du, bai eta hartzaileak eta laguntzen subsidiarotasuna edo osagarritasuna ere. Hain zuzen ere, laguntzen izaera osagarri horren ondorioz, foru-legearen I. tituluaren kapitulu berezietan arautzen dira heriotzagatiko eta kalte fisiko eta/edo psikikoengatik kalte-ordainak eta, bestetik, kalte materialak. II. tituluak arautzen du legearen hartzaileen bigarren taldekoek –persona juridikoek– laguntza publikoen araubideen onuradun izateko duten eskubidea, sustapen-neurri horren baldintza orokorren arabera.

III. tituluak beste erreparazio-neurri batzuk aipatzen eta arautzen ditu: sanitarioak, psikologikoak, etxebizitzakoak, ikasketetakoak, enplegukoak eta zerga-eremukoak; horrela, indarkeria terroristaren biktimen babesa integrala da, helburu honekin: indarkeria pairatzen duenaren eta, kasu jakin batzuetan, haren familia-unitateko kideen eskubideen urraketa eta gabezia gainditzea.

IV. tituluak neurri didaktikoak eta hezkuntza-neurriak jasotzen ditu, bizikidetzaren aldeko gizartea —giza eskubideen errespetuan hezia— lortzeko eta biktimen memoria eta duintasuna babesteko.

Legearen V. tituluak berritasun bat ezartzen du, aurreko legeriarekin alderatuta: parte hartzeko organo bat sortzea terrorismoaren biktimen arloan, administrazio-eremuan komunikazio- eta partaidetza-kanal bat ezartzeko biktimen interesak ordezkatzen dituzten erakundeekin.

VI. tituluak terrorismoaren biktimen berariazko errekonozimendu publikoa jasotzen du, biktima horiek posizio espezifiko bat merezi dutelako herritarren memoria indibidual eta kolektiboan.

Legearen VII. tituluak datu pertsonalak babesteko arau orokorrak arautzen ditu, Europako araudiaren arabera. VIII. tituluak, berriz, prozedura-arauak ezartzen ditu, lege honetan aitortutako eskubideak betearazteko espedienteetan aplika daitezkeen.

Lehenengo eta laugarren xedapen gehigarriek araubide bereziak ezartzen dituzte foru-lege hau indarrean jarri aurretik gertatutako ekintza terroristen kasuetarako; horrela, honako pertsona hauen eskubideak asebate nahi dira: Estatuko Administrazio Orokorraren errekonozimendua eta laguntza jaso ondoren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kudeatutako laguntza osagarria jasotzeko aukerarik izan ez zutenak, dela Estatuko arauak eta Nafarroakoek eskubidea baliatzeko duten epe ezberdinengatik, dela zuzenean biktimei egotzi ezin zaizkien eta laguntzak eskatzea edo lortzea zaildu zuten beste arrazoi batzuegatik.

Lege honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129.3 artikuluan ezarritako printzipio hauek betetzen ditu: arautze egokia, premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, sinpletasuna, efizientzia eta irisgarritasuna.

## ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Foru-lege honek xede du memoria bizirik mantentzea eta errekonozimendu handiena adieraztea ekintza terroristak pairatu dituztenei oro har eta, Nafarroan zehazki, ETaren terrorismoaren biktimei, bai eta ekintza terroristak pairatu dituztenentzako laguntza integrala emateko sistema bat ezartzea ere, inguruabar eta beharrian pertsonal, familiar eta sozialak artatzeko zenbait neurri eta jarduketa artikulatuz Nafarroako Foru Komunitateak arlo horietan esleiturik dituen eskumenen esparruan. Genero-ikuspegia txertatuko da zeharka, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria bermatuko da neurri guztietan.

### 2. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru-lege honen oinarrizko printzipioak dira duintasuna, memoria, egia, justizia, biktimen babesa, erreparazioa eta errekonozimendua.

Nafarroako botere publikoek, foru-lege honen aplikazio-eremuan, terrorismoaren biktimen memoria sustatzeko politikak gauzatu dituzte, foru-lege honetan aipatzen diren giza eskubideen urraketegi buruzko egia ezagut dadin.

Horretarako, bizikidetzaren arloan eskumena duen organoak proiektuak eta ekintzak bultzatuko ditu terrorismoaren biktimen materialak eta lekukotzak kontserbatzeko eta zabaltzeko, biktimen balioak babes daitezten.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki-erakundeek behar diren ekintza guztiak eginen dituzte terrorismoaren biktimen errekonozimendu publikorako, foru-lege honetan ezarritakoaren esparruan eta haien eskubideak eta intimitatea errespetatuz.

Foru-lege honen helburuak lortzeko, Nafarroako Foru Administrazioak egokitasun-, normalizazio- eta integrazio-printzipioak beteko ditu, halako moldez non premia desberdinak asetzeko ezarritako bide ohikoak erabiliko diren, eta horietan lehentasuna emanen zaie foru-lege honen xede diren onuradunei.

### 3. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Lege hau aplikatuko zaie hurrengo artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoei, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gertatutako ekintza terroristek eragin dietelako.

2. Legea aplikatuko da, halaber, ekintza horiek Espainiako beste edozein lekutan edo atzerrian gertatzen direnean, baldin eta biktimek nafar izaera

politikoa bazuten biktimaren errekonozimendua dakarten egitateak gertatu zirenean edo Nafarroan jaio baziren.

### 4. artikulua. Hartzaileak.

Lege honetan ezarritako laguntzak eta neurriak honako hauengana bideratuko dira:

1. Ekintza terroristaren biktimak; hau da, ordena konstituzionala iraultzea edo bake publikoa larriki asaldatzea helburu duten ekintzen biktimak. Ondorio hauetarako, berdin dio ekintzaileak erakunde edo talde kriminaletan sartuta dauden ala ez.

Terrorismoaren biktima dela egiaztatzeko, Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunek emandako administrazio-ebazpen irmoak aurkeztuko dira.

Terrorismoaren Biktimak Errekonozitzeko eta haiei Babes Integrala Emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen babesean emandako enkomien dek eskubideak sortuko dituzte haien hartzaileentzat, ez beste inorentzat, foru-lege honen 22. artikulutik 24.era bitartean jasotako neurriei dagokienez, hargatik eragotzi gabe foru-lege hau indarrean jarri aurretik gertatutako ekintza terroristei buruz laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

2. Biktimaren ezkontidea, legez edo izatez berezia ez dagoena, edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsona, biktimarekin lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna duten ahaideak, eta biktimarekin modu egonkorrean bizi eta haren mende dauden pertsonak.

3. Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakundeak, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimen interesak aldeztzea eta ordeztzea.

### 5. artikulua. Erreparazio-neurri motak.

Foru-lege honetan neurri hauek ezartzen dira:

a) Heriotzagatiko edo kalte fisikoengatiko kalte-ordainak.

b) Kalte psikikoengatiko kalte-ordainak.

c) Kalte materialengatiko erreparazioak.

d) Osasun, hezkuntza, lan, prestakuntza eta etxebizitza arloetako laguntza.

e) Terrorismoaren biktimen defentsa- eta ordezkaritzalanak egiten dituzten erakundeei zuzendutako dirulaguntzak.

f) Administrazio-hitzarmenak erakunde publiko edo pribatuekin, estatukoak zein atzerrikoak izan,

baldin eta helburua terrorismoaren biktimak babes-  
tea eta haiei laguntzea bada.

#### **6. artikulua.** Kalte-ordainen ezaugarriak.

1. Lege honen arabera ematen diren laguntzak, legean bertan ezartzen diren salbuespenak salbuespen, Estatuko Administrazio Orokorrek kontzeptu berberengatik emandakoen osagarriak izanen dira, eta subsidiarioak beste administrazio publiko batzuek aitortutakoekin eta, halakorik balego, aseguru-etxeek edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako kalte-ordainekin.

2. Horrenbestez, baldin eta onuradunak beste administrazio publiko edo entitate batzuen laguntzak jasotzeko eskubidea badu, eta beste entitate horiek emandako zenbatekoa, guztira, Foru Komunitateko Administrazioak emandakoa baino txikiagoa bada, bi laguntzen arteko aldea baizik ez du jasoko. Alde-rik ez badago edo beste administrazio batzuek, aseguru-etxeek edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako laguntzen zenbatekoa Foru Administrazioak emandakoa baino handiagoa bada, azken horrek ez dio ezer emanen onuradunari.

3. Lege honen arabera ematen diren laguntzak eta kalte-ordainak bateraezinak izanen dira 16/2019 Foru Legea aplikatzearen ondorioz jasotakoekin (16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa).

### **I. TITULUA**

**Heriotzagatiko, kalte fisikoengatiko, kalte psikikoengatiko edo bahiketagatiko kalte-ordainak, kalte materialengatiko erreparazioa, eta mendekotasun-egoeragatiko kalte-ordainak**

### **I. KAPITULUA**

**Heriotzagatiko, kalte fisikoengatiko, kalte psikikoengatiko edo bahiketagatiko kalte-ordaina**

#### **7. artikulua.** Heriotza.

1. Ekintza terrorista baten ondorioz norbait hilez gero, kalte-ordainaren zenbatekoa Estatuko Administrazio Orokorrek kasu horretarako emandako zenbatekoaren % 30 izanen da, eta zenbateko horri gehituko zaio.

2. Heriotzagatiko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea jarraian adierazitako pertsonen dute, heriotza gertatu zen eguna eta ezarritako lehentasun-ordena kontuan hartuta.

a) Hildakoaren ezkontidea, legez bananduta ez bazeuden, edo hil aurreko bi urteetan gutxienez etenik gabe harekin bizi izandako pertsona, ezkontza-  
ren antzeko afektibitate-harremenez elkartua (haurrik izan badute, aski izanen da elkarbizitza soila), eta seme-alabak.

b) Arestian aipatuetakorik egon ezean, hartzaille izanen dira, lehentasun-hurrenkeran eta hurrenkeran jarraian datozenak bazter utzirik, hildakoaren gurasoak, bilobak, anai-arrebak eta aitona-amonak.

c) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, biziki-dearen seme-alabak, eta hildakoak familia-harrera iraunkor eta espezializatuan hartutako adingabeak, bi kasuetan ekonomikoki hildakoaren mende baldin bazeuden.

3. Aurreko a) apartatuan, laguntza erdibana banatuko da: erdia ezkontide edo bizikidearentzat izanen da, eta beste erdia seme-alabentzat, haien artean zati berdinetan banatuta.

4. Ahaidetasun bera duten pertsona batzuk badaude, haien artean banatuko da zenbateko osoa.

5. Pertsona batek hildakoarekiko mendekotasun ekonomikoa duela ulertuko da heriotza-unean horren kontura bizi baten osoki nahiz partzialki eta, aldi berean, eskuratzen zituen errentak edo diru-sarrerak ez baziren, urtean, une hartan indarrean zegoen errenta-adierazle publikoak urtean zeukan zenbatekoaren ehuneko 150 baino handiagoak.

#### **8. artikulua.** Kalte fisiko edo psikikoak.

1. Kalte fisikoengatiko kalte-ordainak emanen dira kasu hauetan: baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua, ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor partziala, aldi baterako ezintasuna eta baliaezintasunik eragiten ez duen lesio iraunkorrak.

2. Kalte psikikoengatiko kalte-ordainak emanen dira kasu hauetan: baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa.

3. Kalte fisiko edo psikikoengatiko kalte-ordainaren zenbatekoa Estatuko Administrazio Orokorrek kasu horretarako aitortutako zenbatekoaren % 30 izanen da, eta zenbateko horri gehituko zaio.

#### **9. artikulua.** Bahiketa.

Pertsona bat bahitu eta hura askatzeko baldintzaren bat eskatu bada foru-lege honen aplikazio-eremuko ekintzen ondorioz, pertsona horri kalte-ordaina emanen zaio; zehazki, Estatuko Administrazio Orokorrek kasu horretarako aitortutako zenbatekoaren % 30.

## II. KAPITULUA

### Kalte materialengatiko erreparazioa

**10. artikulua.** Kalte materialen konponketa eta prebentzioa.

1. Ekintza terroristen baten ondorioz kalte materialak gertatzen bazaizkie horien erantzule ez direnei, kapitulu honetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira, ondasunaren izaeraren eta eragindako kaltearen arabera, eta kalte-ordainen zenbatekoak ez dira inoiz izanen kaltetutako ondasunen balioa baino handiagoak.

Kaltetutako ondasunen titularrei eginen zaizkie erreparazioak.

2. Kalte materialengatiko laguntzetatik kanpo geratzen dira Espainiako eta atzerriko administrazio publikoen sektore publikoa osatzen duten organo, erakunde eta entitateen jabetzako ondasunak, bai eta nazioarteko erakundeak ere.

3. Kalte materialengatiko erreparazioen zenbatekoan honako hauek sartuko dira: pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak, merkataritza edo industriako establezimenduetan edo enpresetako ekoizpen-elementuetan, alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundeen egoitzetan eta ibilgailuetan eragindakoak, betiere foru-lege honetan ezarritako baldintzetan eta mugekin.

4. Ekintza terroristek eragindako kalte materialak erreparatze aldera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru-lege honen babesean ematen dituen laguntzak osagarriak dira Estatuko Administrazio Orokorrak kontzeptu berengatik emandakoekin eta, kasua bada, aseguru-etxeek edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako kalte-ordainekin.

5. Baldin eta artikulua honetan ezarritako laguntzen hartzaileak aseguru-entitate baten edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren kalte-ordainik jasotzen badu kontzeptu bera dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kalte-ordainaren zenbatekoa kenduko du laguntzatik. Kalte-ordaina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako laguntzaren berdina edo handiagoa bada, Foru Komunitateak ez du inolako zenbatekorik ordainduko.

**11. artikulua.** Pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak.

1. Foru-lege honen ondorioetarako, ohiko etxebizitza da gutxienez ere urtean sei hilabetez pertsona edo familia-unitate baten egoitza den eraikina. Orobat hartuko da ohiko etxebizitzatzat baldin eta, hor emandako denbora urtean sei hilabetez beheitikoa izanik, bizitzen hasi zen egunetik ira-

gandako denboraren erdiaren parekoa izan bada, gutxienez ere.

2. Pertsona fisikoen ohiko etxebizitzetan erreparazioan honako hauek sartuko dira: etxebizitzaren galera erabatekoa; egituraren, instalazioetan eta altxarrietan izandako kalteak; eta atentatuaren aurreko bizigarritasun-baldintzak leheneratzeko berritik jarri beharreko gauzak eta tresnak, salbu eta luxuzko elementuak.

3. Baldin eta kaltetutako etxebizitza ez bada ohiko bizilekua, luxuzkoak ez diren elementuetan eragindako kalteen 100eko 80ko muga izanen du laguntzak; ehuneko hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira jaso izan diren laguntzak.

4. Erreparazioak betiere hartuko ditu etxebizitzetako elementu pribatiboetan eragindako kalteak. Etxebizitza dagoen eraikineko elementu komuneetan eragindako kalteak ere hartuko ditu, baldin eta horiek Nafarroako Foru Komunitatean badaude.

5. Konponketa legitimoki egin edo agindu duten etxebizitzetan jabeak, errentariei edo bizilagunei ordainduko zaie. Jabetza horizontalaren araubideari atxikitako higiezinetakako elementu komuneetan eragindako kalteen kasuan, konponketaren zenbatekoa jabeen erkidegoari ordaintzen ahalko zaio.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behin-behineko ostalua emanen die ekintza terroristak eragindako kalteak direla-eta beren ohiko etxebizitza aldi baterako erabiltzerik ez dutenei; hartara, ordaindu eginen die kaltetutako etxebizitzaren gisako baten alokairua edo hark onetsitako hotel-establezimendu bateko ostalualdia konponketalanek iraun bitartean, baldin eta konponketalanek ez badira onuradunaren erruz luzatzen.

7. Nafarroako Gobernuak zehaztuko du, kasuko erregelamendu-garapenaren bidez, zer laguntza-mota berezi ematen ahalko dien biktimei, jazarpen terroristaren kariatara, baldin eta biktimek beren etxebizitza edo ohiko bizilekua utzi beharra badute jazarpen horren ondorioz, terrorismoaren biktimei inguruabar horrek ekartzen dizkien kalte ekonomikoak ordaintze aldera.

**12. artikulua.** Merkataritza- edo industria-establezimenduetako kalteak.

1. Merkataritza- edo industria-establezimenduetako edo enpresetako ekoizpen-elementuetako kalteen konponketan sartuko da establezimendu horiek berriz ere funtzionatzen jartzeko beharrezkoa den zenbatekoaren balioa, hargatik eragotzi gabe foru-lege honetako bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa finantza-entitateekiko lankidetzaren hitzarmenei dagokienez.

2. Titulartasun publikoko ondasunei eragindako kalteak ez dira ordainduko.

**13. artikulua.** Kalteak alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte-erakundeen egoitzetan.

1. Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundeen egoitzetan eragindako kalteen konponketan sartuko dira funtzionamendu-baldintzak lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, hondatutako altzariak eta elementuak barne.

2. Izaera horretako kalte ordaingaitzat hartuko dira ekintza terroristek inskribatutako erlijio-konfesioen egoitzetan edo kultu-lekuetan eragindakoak.

**14. artikulua.** Kalteak ibilgailuetan.

Ibilgailuetan eragindako kalteen konponketan muga izanen da behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den gastuaren zenbatekoa. Baldin eta ibilgailua deseginda gelditzen bada edo konponketaren zenbatekoa haren salmenta-balioa baino gehiagokoa bada, gisako ezaugarri teknikoekiko eta gisako erabilera-baldintzekiko ibilgailu batek merkatuan duen balioaren parekoa izanen da kalte-ordaina. Aditu-txostenean jasota ageriko da, kasuan-kasuan, konponketen edo bestearen ordeztan emandakoaren balioa. Bakarrik konpontzen ahalko dira ibilgailu partikularretan eragindako kalteak, eta pertsonen nahiz salgaien lurreko garrariorakoetan eragindakoak, salbu eta titulartasun publikoko ibilgailuetakoak. Kalte-ordaina ordaintzeko ezinbesteko baldintza izanen da ibilgailuak indarrean izatea derrigorrezko aseguruaren atentatua gertatu den unean.

**15. artikulua.** Zenbatekoak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kalte materialak erreparatzeko kalte-ordainak eman aurretik, Estatuko Administrazio Orokorrari eskatu behar zaizkio bere araudian kapitulu honetako kasuetarako ezarritako kalte-ordainak eta konpen-tsazioak.

### III. KAPITULUA

#### Mendekotasun-egoeragatiko kalte-ordainak

**16. artikulua.** Kalte-ordainen edukia. Mendekotasuna.

1. Ekintza terroristaren ondoriozko mendekotasun-egoeragatiko kalte-ordain gisa, laguntzak emanen zaizkie biktimei, baldin eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari jarraikiz mendekotasun-egoera onartu bazaie.

2. Mendekotasun-egoeragatiko kalte-ordainak emanen dira arlo horretako eskumena duen departamentuko titularrak mendekotasuna aitortutakoan, gradua eta maila edozein izanik ere.

3. Bateragarriak izanen dira mendekotasun-egoera aitortzeagatiko kalte-ordainak direla-eta jasotako zenbatekoak eta biktimek jasotzeko eskubidea duten bestelako kalte-ordain oro, non eta ez zaizkion kontzeptu berari zor. Edozein modutan, bateragarriak izanen dira Biktimari Laguntzeko Banakako Programan ezar litezkeenak eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 14. artikuluan aipatzen diren prestazio ekonomikoak.

**17. artikulua.** Mendekotasun-egoeragatiko kalte-ordainen zenbatekoak.

Mendekotasun-egoera aitortzeagatiko kalte-ordainak graduaren arabera ezarriko dira; halatan, ehuneko hauen arabera igoko dira Foru Komunitateko Administrazioak kalte fisiko eta psikikoengatiko kalte-ordain gisa emandako zenbatekoak, forulege honetan ezarritakoak:

a) % 30eko igoera III. graduan baloratutako pertsonentzat. Mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak.

b) % 20ko igoera II. graduan baloratutako pertsonentzat. Mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak.

c) % 10eko igoera I. graduan baloratutako pertsonentzat –tarteko mendekotasuna, 1. eta 2. mailak–.

**18. artikulua.** Mendekotasunagatiko babes-maila osagarria.

1. Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 7.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak babes-maila osagarria ezarriko du mendekotasuna duten pertsonentzat, baldin eta haien zaintzaile ez-profesionala, aipatu legeko 14.4 artikuluan aipatzen dena, atentatu terroristaren bateko biktima suertatzen bada eta baldintza hauek batera gertatzen badira:

a) Bien arteko familia lotura egotea eta lotura hori kontuan hartu izana mendekotasunagatiko laguntzak lortzeko, arloko foru araubideak ezarritakoaren arabera.

b) Atentatu terroristaren ondorioz zaintzaile ez-profesionala hiltzea edo II. graduako mendekotasun-egoera –mendekotasun larria– edo III. graduakoa –mendekotasun handia– aitortzea hari, mendekotasun-maila edozein izanik ere.

2. Artikulu honetan ezarritako babes-maila osagarria 9.000 euroko laguntza bat izanen da, zeina memoria eta bizikidetzaren arloko departamentu eskudunaren funts berekien kargura finantzatuko baita.

**19. artikulua.** Ohiko etxebizitza egokitzea.

Biktimiek beren ohiko etxebizitza egokitzeko laguntza jasotzen ahalko dute, ekintza terrorista baten ondorioz horretarako premia dakarren desgaitasun-maila badute. Laguntza horiek subsidiarioak izanen dira etxebizitzaren eta gizarte-eskubideen arloan eskumena duten departamentuek emandakoekin eta aseguru-etxeek edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako zenbatekoekin.

## II. TITULUA Dirulaguntzak

**20. artikulua.** Dirulaguntza ematea.

Dirulaguntzak ematen ahalko zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, entitateei, fundazioei eta elkarteei, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimen interesak aldezte eta ordezte, biktimen egoera pertsonal nahiz kolektiboak arintzera bideratutako laguntza programak garatzea edo biktimak nabarmentzeko jarduera programak edo terrorismoaren gaitzaren ezein agerraldiren aurkako gizarte-kontzientziario eta hezkuntzara bideratutako jarduerak garatzea eta betetzea bilatzen badute, bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak aldeztuz.

## III. TITULUA Beste erreparazio-neurri batzuk

**21. artikulua.** Eremua.

Foru-lege honek arautzen dituen laguntza-prestazioak eremu hauetakoak izanen dira:

- a) Osasun-laguntza.
- b) Laguntza psikologikoa.
- c) Etxebizitza.
- d) Irakaskuntza.
- e) Lana.
- f) Kultura.

**22. artikulua.** Osasun-laguntza.

1. Ekintza terrorista baten ondorioz lesio fisikoak jasan dituztenek, baldin eta edozein aurreikuspen-sistema publiko edo pribaturen bidez osasun-laguntzako gastuak estalita ez badituzte, Nafarroako Foru Komunitatetik jasoko dute osasun-laguntza.

2. Osasun-laguntzan sartuko dira jasandako lesioetatik heldu diren tratamendu medikoa, prote-siak jartzea, kirurgia-operazioak eta ortopedia-beharrizanak.

**23. artikulua.** Laguntza psikologikoa.

Laguntza psikologikoa hiru motatakoa izanen da:

1. Berehalako laguntza psikologikoa. Biktimari nahiz biktimarekin ahaidetasun-, bizikidetz- edo mendekotasun-harremana dutenei emanen zaie. Hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-trazioak bere baliabide berekiak erabiliko ditu edo, bestela, laguntza mota horretan adituak diren beste erakunde edo entitate pribatuena.

2. Sekueletarako laguntza psikosoziala. Biktimiek nahiz biktimarekin ahaidetasun- (lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna), bizikidetz- edo mendekotasun-harremana dutenek izanen dute eskubidea laguntza hori jasotzeko, eta, medikua-ren agindua jaso ondoren, atentatuek eragindako edo agerian utzitako nahasmendu psikologikoak agertzen diren unetik jasotzen ahalko da. Behar duten laguntza pertsonala eta soziala ere emanen zaie, Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioko osasunaren eta gizarte-politiken arloetako eskumena duten departamentuek esku hartuta. Beharrezkoa baldin bada, hitzarmenak egiten ahalko dira entitate edo erakunde pribatuekin, zerbitzu publikoek eman ezin dituzten prestazioak ziurtatze aldera, eta Nafarroako Gobernuak finan-tzatuko du beharrezkoak diren banakako zerbitzu eta tratamendu horien kostua.

3. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako laguntza psikopedagogikoa, baldin eta, haiek nahiz haien gertueneko familiartekoek eta haiekin modu egonkorrean bizi diren perso-nek ikaskuntza arloko zailtasunak edo gizarte-egokitzapeneko arazoak badituzte pairatutako atentatu terrorista baten ondorioz. Laguntza hori ere doakoa izanen da, Nafarroako Foru Komunita-teko Administrazioari zerbitzuek bere gain hartuko baitute.

**24. artikulua.** Etxebizitza eremuko laguntzak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ekintza terrorista batetik zuzenean edo zeharka eratoritzen diren etxebizitza-premia bereziei eran-tzunen die, etxebizitza arloko foru-araudian xeda-tutakoari jarraikiz.

Laguntza biktimarentzat izanen da, edo, hil egi-nez gero, hildakoaren ezkontidearentzat, legez bananduta ez bazegoen, edo hil aurreko bi urteetan gutxienez etenik gabe harekin bizi izandako per-sonarentzat, ezkontzaren antzeko afektibitate-

harremana bazuen, eta lehen mailako ahaideentzat, aplikatzekoa den araudi sektorialarekin bat etorri.

Foru-lege honek indarra hartu aurreko ekintza terroristen kasuan, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

### **25. artikulua.** Ikasteko bekak eta laguntzak.

1. Ikasteko laguntzak emanen dira baldin eta, ekintza terrorista baten ondorioz, ikasleak nahiz haren gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek kalte personalak –garrantzi berezikoak nahiz beren ohiko lanbidean aritzeko ezgaitzen dituztenak– jasan badituzte. Kalte horien garrantzi berezia baloratzean, pairatutako lesioek biktimarengan eta familia-ekonomian dituzten ondorioei erreparatuko zaie.

2. Ikasteko laguntzetan sartuko dira hala zerbitzu akademikoaren tasak ordaintzera bideratutakoak nola eskolako materialeko, garraioeko, jantokiko eta, kasua bada, familiaren etxebizitzatik kanpo bizitzeko gastuak.

3. Laguntza horiek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan emanen dira, baina aparteko kasuetan beste erkidego batzuetako ikastetxeetara hedatzen ahalko dira, eta lanerako prestakuntza, lanbide-heziketa edo unibertsitate-ikasketak bukatu arte luzatuko dira, baldin eta errendimendua –gerta litekeen atzerapen psikopedagogikoa onartuta– egokituz jotzen bada.

4. Ikasleak ezin izanen du jaso ikasturte bakoitzeko beka bat baino gehiago, nahiz eta zenbait ikastaro edo karrera eginaldi berean. Bateriaezinak izanen dira terrorismoaren biktimei emandako bekak eta beste administrazio publiko batzuek edo erakunde pribatuek kontzeptu beragatik emandakoak.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan hezkuntzaren eta unibertsitatearen arloko eskumena duten departamentuek deialdi bakoitzean zehaztuko dituzte terrorismoaren biktimei aplikatu beharreko laguntzak eta espezialitateak. Bekak eta ikasteko laguntzak eskuratzeko mugaren ondorioetarako, familia-unitatearen errentan ez da kontuan hartuko ekintza terroristaren ondorioz jasotako kalte-ordainen zenbatekoa.

6. Ikasle horientzako ikasteko bekak eta laguntzak kasuan kasuko deialdian ezarritako prozedurari eta epeei jarraikiz eskatu eta emanen dira.

### **26. artikulua.** Enpleguaren arloko laguntzak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ekintza terrorista baten ondorioz beren lana arazorik gabe egitea eragozten dieten kalte fisiko edo psikologikoak pairatu dituzten pertsonen lan arloan laguntzarik onena emate aldera, birlanertzeko planak eta autoenpleguko programak –doako-

ak betiere– taxutuko ditu, pertsona horiek hobeki egoki daitezela lanera. Halaber, egoki iritzitako laguntzak sortuko ditu, ukituei enpresa berriak sortzen laguntzeko. Orobat, bultzatuko du ezen, enpresen erantzukizun sozial korporatiboaren barruan, terrorismoaren biktimak lehentasunez kontrata daitezela.

Arlo horretako eskumena duen departamentua arduratuko da programa eta plan horiek sortzeaz.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioen zerbitzuko langile, irakasle, osasun eta ikerkuntza arloko langile diren biktimei behar diren eskubideak, baimenak eta lizentziak, bai eta administrazio-egoerak ere onartuko zaizkie, biktima direla frogatzen baldin bada, kasuko eremuko araudiaren esparruan, eragingarria izan daitezela haien babesa eta laguntza integrala jasotzeko eskubidea. Halaber, ziurtatu beharko da lanpostua atentatuak kaltetutako langilearen berezitasun fisikoetara eta psikologikoetara egokituko dela, bai eta haren egoerari ongien egokitzen zaion lanpostura atxikiko zaiola ere, eta herriz aldatzea ekidinen da, non eta langileak ez duen espresuki eskatzen.

### **27. artikulua.** Zerga arloko neurriak.

Nafarroako Gobernuak, zerga arloan dituen eskumenen esparruan, egoki iritzitako zerga-onuren ezarpena sustatuko du terrorismoaren biktimei alde eta, atentatuaren ondoriozko heriotza kasuan, ezkontidearen edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsonaren eta seme-alaben alde, baldin eta heriotzaren unean biktimarekin modu egonkorrean bizi eta ekonomikoki haren mendean bizi baziren.

### **28. artikulua.** Kultura-instalazioak.

Ekintza terroristen biktimek prezio publikoetan tarifa murriztueterako eskubidea izanen dute Foru Administrazioaren titulartasunekoak diren kultura-instalazioetara (museoak, artxiboak, erakusketa-aretoak) sartzeko eta horiek erabiltzeko, bai eta administrazio horrek instalazio horietan antolatzen dituen kultura-ikastaroen matrikula pagatzeko ere. Deskontuak ezin izanen dira metatu, baldin eta kontzeptu batengatik baino gehiagorengatik behar-penerako eskubidea badago.

### **29. artikulua.** Aparteko laguntzak.

Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen ahalko ditu ekintza terroristen biktimei premia personalak arintzeko, baldin eta terrorismoaren biktimei arloan eskumena duen organoak ebaluatu eta egiaztatu badituzte eta egiaztatzen bada premia horiek behar bezala estaltzeko beste laguntzarik ez dagoela edo laguntza horiek nahikoak ez direla.

**30. artikulua.** Herri akzioa.

Biktimen eta haien senideen segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko eta, bereziki, jendaurreko ekitaldiak prebenitzeko eta saihesteko, baldin eta ekintza horiek biktimen edo haien senideen ospe txarra, gutxiespena edo umiliatzea, terrorismoa govestea, terroristei omenaldia egitea edo terroristei sariak ematea badakarte, neurri egokiak hartuko dira, eta bereziki jardunen da halako pintaden eta kartelen aurka; hala badagokio, arau-hauste penala izan daitezkeenak ikertuko dira, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak herri akzioa baliatzen ahalko du eskubide hori defendatzeko.

**31. artikulua.** Egiaztapena.

Foru-lege honetan ezarritako laguntzak eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dagokion egiaztapena emanen du.

**IV. TITULUA****Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza**

**32. artikulua.** Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza

1. Nafarroako Gobernuak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Heziketa Programa bat egingen du urtero, Nafarroako gizarte osoari zuzendua. Programa horrek xede izanen du oinarritzko estrategiak eta edukiak unibertsalizatzea, herritarrek indarkeriarik ezaren, tolerantziaren, demokraziaren, herritartasunaren eraikuntzaren eta giza eskubideen sustapenaren balioak garatu ditzaten.

2. Hezkuntzaren, memoriaren eta bizikidetzaren arloetan eskumena duten Nafarroako Gobernu departamentuek proiektu batzuk ezarriko dituzte hezkuntza-maila guztietan, non islatuko baitira giza eskubideen bermeak, indarkeriaren deslegitimazioa eta terrorismoaren aurrean bizikidetzaren baketsu eta demokratikoaren balioak, eta herritarrengan hitzak duen balioaren kontzientzia errotuko dutena, ideiak modu demokratikoan defendatzeko bitartekoa eta modua den aldetik.

Bereziki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta unibertsitate-mailetan, terrorismoaren biktime hezitzaileen programa pedagogikoak egingen dira, gorrotoaren aurrean bizikidetzarako diskurtso eraikitzaileari eutsiko diotenak, haien testigantzak ikasgeletara eramanez eta hausnarketarako, erparaziorako eta biktimikiko konpromisorako espazioak sortuz. Horrekin guztiarekin, elkartasun- eta enpatia-kanalak ezarriko dira emozioen noranzko

biko trukean. Gainera, programa horiek terrorismoari eta terrorismoaren biktimei buruzko prestakuntza eta material bibliografiko eta didaktikoa emanen diete irakasleei, programen ezarpena sustatzeko.

Hezkuntza-proiektuek genero-ikuspegia txertatu dute, eta aukera emanen dute terrorismoaren eragin berezia ulertzeko eta berdintasun-balioak sustatzeko.

3. Nafarroako Gobernuak biktimen memoriarekin lotutako ekintzak egingen ditu; zehazki, hauek:

a) Nafarroako terrorismoaren historiari buruzko iku-entzunezko artxiboko dokumentuak egitea, biktimen lekukotzak jasota.

b) Unibertsitate-eremuan terrorismoari buruzko ikerketa sustatzea, beken deialdiak egingez eta Nafarroako unibertsitateekin hitzarmenak sinatuz.

**33. artikulua.** Ekintzak sustatzea.

1. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, zenbait jardura bultzatuko ditu terrorismoaren biktimen memoria eta duintasuna erraztu, babestu eta zaintzeko, bai eta foru-lege honetan erabateko erreparaziorako eta laguntza osorako ezarritako helburuak hobeki betetzeko.

2. Horretarako, zenbait programa eta jardura sustatuko ditu erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, toki-, foru-, estatu- edo nazioarte-mailan, baldin eta horien helburua terrorismoaren biktimei arreta, giza laguntza, orientazioa edo laguntza psikosoziala ematea bada, bai eta gai horri buruzko foroak, ikastaroak, mintegiak edo erakusketa ibiltariak egitea eta hezkuntza-arloko edo balio etiko eta demokratikoak sustatzeko beste jardura eta proiektu batzuk egitea ere.

**V. TITULUA****Nafarroako Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseilua**

**34. artikulua.** Izaera, osaera eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseilua sortzen da. Kide anitzeko organo aholku-emailea eta aholkularitzakoa izanen da, eta Nafarroako administrazio publikoek terrorismoaren biktimen arloan gauzatzen dituzten politika publikoak aztertuko ditu. Memoriaren eta bizikidetzaren arloan eskumena duen departamentuari atxikiko zaio.

2. Nafarroako Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuari aholku ematea terrorismoaren biktimekiko harremanetan jorrazten dituen ildo orokorre, helburuei eta berariazko ekimenei buruz.

b) Neurriak edo ekimenak proposatzea Nafarroako terrorismoaren biktimen aurrerapena, hobekuntza eta ongizatea handitzeko.

c) Txostenak egitea —aginduzkoak baina ez lotesleak— foru-legeen aurreproiektuei eta foru-dekretuen proiektuei buruz, hori eskatzen zaionean.

d) Nafarroako administrazio publikoek eskualdeko, nazioko eta nazioarteko lankidetzaren eremuetan duten parte-hartzearen berri izatea, betiere terrorismoaren biktimekin zerikusia duten gaietan.

e) Foru-legearen aplikazioa aldizka ebaluatzea eta urteko memoria egitea.

f) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein.

3. Nafarroako Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseiluko lehendakaria memoriaren eta bizikidetzaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak izanen da.

Kontseiluko lehendakariordea memoria eta bizikidetzaren arloko zuzendari nagusia izanen da, eta idazkaria, aldiz, zuzendaritza nagusi horri atxikirik dagoen eta bizikidetzaren arloan eskumena duen unitateko titularrak. Horiez gain, beste 10 kontseilukide izanen dira:

a) 4 kontseilukide, Nafarroan ordezkari zarik zabalena duten biktimen elkarteetakoak.

b) 3 kontseilukide, foru-lege honekin zerikusia duten gaietan eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuetakoak, terrorismoaren biktimen arloan eskumena duen departamentuko titularrak proposatuta.

c) 2 kontseilukide, Nafarroako Parlamentuak bere ordezkari-tza-arauen arabera izendatuak.

d) Kontseilukide bat, Nafarroako Udak eta Kontzejuen Federaziokoak.

4. Emakumeen eta gizonen ordezkari-tza-orkatua bermatuko da Kontseiluan, berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

5. Kontseiluak gutxienez ere urtean behin egiten du ohiko bilkura, eta ezohiko bilkura, berriz, kontseiluburuak egoki irizten dionean, bai eta, betiere, kideen herenak hala eskatzen duenean.

Kontseiluaren bilkurak presentzialak, telematikoak edo mistoak izan daitezke.

Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko da; hau da, foru dekretu baten bidez.

## VI. TITULUA

### Ohorezko sariak eta biktimen oroimenezko jarduketak

**35. artikulua.** Errekonozimendu instituzionala eta biktimen oroimena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak terrorismoaren biktimak oroitzeko eta errekonozitzeko ekintza publikoak sustatuko ditu, ekintza terroristak jasan zituztenen oroimena babes-teko. Ekintza horietan, ekintza terroristen biktimen zuzeneko lekukotza izanen da, ahal delarik, eta biktimak gogoratuko dira eta haien memoria bultzatuko da elementu bereizgarrien edo ekintza espezifiko- en bidez.

Halaber, terrorismoaren biktimei buruzko azterketak, ezagutza sakontzeko lanak eta ikerketak sustatuko ditu, baita ekintza terroristak gertatu ziren testuinguruari buruzkoak ere, ezagut eta zabal daitezzen.

2. Orobat, Espainiako eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko terrorismoaren historiari buruzko ikus-entzunezko artxiboko dokumentuak egitea bultzatuko du, biktimen lekukotzak jasota, eta dokumentu horiek herritarren eskura jarriko ditu, gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legerian, artxiboei eta dokumentu-ondareari buruzko legerian eta Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritako baldintzetan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du terrorismoari eta terrorismoaren biktimei buruzko material bibliografiko eta didaktikoa egotea liburutegi-sistema osatzen duten liburutegietan eta Nafarroako Foru Komunitatearen mendeko ikastetxeetan. Horretarako:

a) Bere eskumeneko hezkuntza-curriculumean eta Lehen Hezkuntzaren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren eremuetan txertatuko ditu terrorismoarekin lotutako edukiak, Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak, eta balio demokratikoak, terrorismoari aurre egiteko tresnak baitira.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen mendeko ikastetxeetan bultzatuko du terrorismoaren biktimek edo haien interesak ordezkatzeko eta defendatzeko dituzten entitateetako kideek hitzaldiak, bisitak eta jarduerak egitea, ikasleei informazioa emateko eta haien sentsibilizatzeko terrorismoari eta haren biktimei buruz.

4. Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, memoria espazioak dira espazio publiko batean eta erakundeek ekimenez atentatu terrorista hilgarri bat gertatu zen lekua seinalatzen duten eta biktimek izena agertzen duten plakak, terrorismoaren biktimek oroimenez eta omenez eraikitako monumentuak eta haien ehorketen lekuak. Horrenbestez, herritarren errespeturik handiena merezi dute, eta behar bezalako babes administratiboa izan beharko dute, erregelamenduzko garapen baten bidez.

**36. artikulua.** Biktimak oroitzeko eguna.

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako gainerako administrazio eta erakunde publikoekin koordinatuta, terrorismoaren biktimek errekonozitzeko ekitaldiak egiten ditu urtero martxoaren 11n, hau da, Terrorismoaren Biktimek Europako Egunean, gaia oroitzeko egiten diren beste ekitaldi batzuk alde batera utzi gabe.

**37. artikulua.** Ohorezko sariak.

Nafarroako Foru Komunitateak, kasuan kasuko inguruabarrak baloratu ondoren, ohorezko sariak ematen ahalko dizkie, errekonozimendu gisa, bai biktimei bai terrorismoaren aurkako borrokagatik, biktimek duintasunagatik eta balio demokratikoen defentsagatik nabarmendu diren pertsona, erakunde edo entitateei.

## VII. TITULUA

### Datuen babesa eta konfidentzialtasuna

**38. artikulua.** Datuen babesa eta konfidentzialtasuna.

Terrorismoarekin zerikusia duten jarduketara eta prozeduretan, biktimek intimitatea babesteko da; bereziki, haien datu pertsonalak, haien ondorengoak eta haien zaintza edo jagoletzaren pean dagoen beste edozein pertsonarenak, bi arau hauetan ezarritakoarekin bat: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeri buruzko arauak ezartzen dituena; eta 3/2018 Lege

Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak barne protokolo bat egiten du biktimek irudia tratatzeko, arlo horretan aplikatzekoak diren arau deontologikoetan oinarrituta.

## VIII. TITULUA

### Prozedura

**39. artikulua.** Prozeduraren printzipioak.

1. Foru-lege honetako neurriak aitortzeko eta emateko administrazio prozedura bi arau hauetan ezarritakoaren arabera egiten da: 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa; eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

2. Izapideetan, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkiderako ezarritako eskubiak errespetatuko dira; bereziki, hauek:

a) Administrazio publikoetako agintari eta langileek begirunezko eta aditasunezko tratua emateko, eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko erraztasunak emanez, kontuan hartuta zer zaurgarritasun-egoeratan dauden.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin baliabide telematikoen bidez komunikatzekoak.

c) Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko, Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza koofiziala baita.

**40. artikulua.** Kalte-ordainak jasotzeko baldintzak.

Lege honetan araututako kalte-ordainak jaso ahal izateko, 3. eta 4. artikuluetan ezarritako betebeharez gain, Estatuko Administrazio Orokorreko organoek alde aurretik aitortu beharko diote interesdunari Estatuko araudian finkatutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea duela, terrorismoaren biktimek errekonozitzeko eta babes integrala emateko araudiarekin bat.

**41. artikulua.** Hasiara.

1. Interesdunek eskatuta abiaraziko da foru-lege honetan aitortutako kalte-ordainak, erreparazioak edo laguntzak emateko administrazio-prozedura.

2. Prozedurak dagokion eskaera aurkeztuta hasiko dira. Horretarako, eredu ofizialak onetsiko dira, eta interesdunen eskura jarriko.

Eskabidearekin batera, foru-lege honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten datuak eta dokumentuak aurkeztu beharko dira.

3. Eskakerak aurkezteko epea bi urtekoa izanen da, Estatuko Administrazio Orokorrek terrorismoaren biktima errekonozitzen duen egunetik aurrera.

#### **42. artikulua.** Instrukzioa.

1. Laguntzaren edo neurriaren izaeraren araberako eskumena duen departamentuari dagokio eskabideak izapidetzea.

2. Instrukzioa azkartasunaren eta biktimen aldeko tratua printzipioek gidatuko dute, eta biktimei arreta emateko prestakuntza espezifikoa duten langileek eginen dute.

#### **43. artikulua.** Ebazpena eta ordainketa.

1. Ebazteko epea sei hilabetekoa izanen da, eskabidea aurkezten denetik aurrera.

2. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3. Kalte-ordain ekonomikoak gehienez ere lau urteko epean ordaindu beharko dira, eskaera baiesten duen ebazpenaren datatik zenbatzen hasita.

**Lehen xedapen gehigarria.** Foru-lege honek indarra hartu aurreko egoerak.

Foru-lege honek indarra hartu aurretik Estatuko Administrazio Orokorrek heriotza edo kalte fisiko eta psikikoengatik aitortutako laguntzak jaso dituztenek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntza osagarriak jaso ez badituzte, azken horiek eskatzen ahalko dituzte lau urteko epean, arau hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.

Hori guztia, foru-lege honen 41.3 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

Aldez aurretik ezindutako biktima foru-lege hau indarrean sartu aurretik hil bada, eta ez atentatuaren sekuelengatik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntza osagarriak jaso gabe, haren kausadunek eskatzen ahalko dituzte laguntza horiek, egiaztatu ondoren ezen egoera horretan daudela eta estatuak behar den ebazpena eman duela.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Aurrekontu-kredituak.

Memoriaren eta bizikidetzaren arloan eskumena duen departamentuak behar adina kreditu gaituko ditu arau hau aplikatzeko, baldin eta aurrekontuan diru erabilgarri nahikoa badago.

Biktimentzako laguntzen funtsezko zati gisa, Nafarroako Gobernuak behar adina lankidetzahitzarmen eginen ditu Foru Komunitatean jarduten diren finantza-entitateekin, terrorismoaren biktimei eta kaltetutako pertsonen baldintzarik onenetan eskaintzearen finantzaketa.

#### **Hirugarren xedapen gehigarria.** Dirulaguntzak.

Edukiagatik bidezkotzat jotzen den kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateak egindako dirulaguntzen eta laguntzen deialdietan, horiek emateko irizpideen artean, terrorismoaren biktima izatea balortuko da.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Etxebizitza-arlako laguntzak.

Foru-lege hau indarrean jarri aurreko ekintza terroristen kasuan, 24. artikuluan jasotako laguntzak soilik aplikatuko zaizkie ekintza terrorista horren ondorioz zaurgarritasun-egoeran dauden eta etxebizitzaren esparruan babes berezia behar duten biktimei, irizpide ekonomiko eta sozialen araberako. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio irizpide horiek balioestea.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe geldituko dira foru-lege honi kontrako egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta bereziki 9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa.

**Azken xedapenetako lehena.** Arauak emateko gaikuntza.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari egoki diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan, foru-lege hau aplikatze eta garatze aldera.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Idazketa berria ematea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 25 bis artikuluari.

Idazketa berria ematen zaio Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 25 bis artikulua 2. apartatuari, eta testu hau izanen du:

“Terrorismoaren biktimatzat joko dira Terrorismoaren Biktimak Errekonozitu eta Haiei Erreparazioa Emateko Foru Legearen xedatutakoaren arabera biktimatzat hartzen diren pertsonak, bai eta hildakoen ezkontideak eta lehen mailako senideak ere, baldin eta ofizialki halakotzat onartutako terrorismo-ekintzen ondorioz hil badira”.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Araudia eguneratzea eta egokitzea.

Nafarroako Gobernuak, tributu-neurriei buruzko hurrengo foru-lege proiektua egitean, aldaketa bat sartuko du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren testu bateginean, foru-lege honetan ezarritako kalte-ordain eta laguntza ekonomikoen ondorioz jasotako zenbatekoak salbuetsizat jotzeko, eta beste aldaketa bat Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legean,

adierazteko terrorismoaren biktimak salbuetsita daudela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hautaketa-prozesuetan parte hartzeko tasak ordaintzetik.

**Azken xedapenetako laugarrena.** Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra; halere, hori ez da oztopo izanen bertan xedatutakoa 1960ko urtarrilaren 1etik aurrerako gertakariei aplikatzeko.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-26/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoa-rekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Agintzea ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena,  
Ingurumenean eragina duten  
jarduerak arautzen dituen  
abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea  
aldatzea xede duena****HITZAURREA**

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan energia berriztagarrien integrazioa egitea, bai eta ekonomia zirkularreko ekimen haiek, zeinek modua ematen baitute ustategietan sortzen diren hondakinak energian edo ongarri organikoetan eraldatzeko, bilakatzen dira klima-larrialdiari eta lehen sektoreak Europa osoan bizi duen kinka bereziki larriari erantzuteko estrategia.

Testuinguru horretan, munta berezikotzat jo behar da biometanoa, energia berriztagarriaren iturria izaki, eta eratorria nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan sortzen diren askotariko hondakin organikoei hurbileko lurralde batean berreskuratzea izateko egiten zaien tratamendu-prozesutik.

Ekimen horiek bateragarriak izan behar dira lurralde-oreka jasangarriko printzipioekin, energia berriztagarriko eta beren ingurunekeo ekonomia zirkularreko azpiegitura-instalazioekiko konpromisoa duten udalen interes orokorrekarekin eta haietako herritarren ongizate eta bizi-kalitatearekin. Izan ere, ekimen horiek jasangarritasuna haren hiru ildoetan bermatu behar dute: ingurumenarena, ekonomiarena eta soziala.

Jardueraren ikuspegitik, kontuan hartu behar da bi eginkizun dituela –hondakinen kudeaketa eta energia berriztagarrien produkzioa–, halako moldez diseinaturik non instalazio horiek helburu bikoitz hori modu orekatuan lortu behar duten.

Jarduera dimentsionatzeko orduan, bereziki garrantzitsua da ezarri nahi den lurraldearen benetako beharretara egokituta egotea hura, eremu

horretan sortutako hondakinen tipologia, ezaugarriak eta bolumena aintzat hartuta.

Energia-iturri horrek piztu duen interes handiaren harira, biometanizazio-instalazioak ezartzeko proiektu ugari daude gaur egun Nafarroan, foru-erkidegoko zenbait lekutarako proposatuak, bai eta izapidetze-fasean dauden instalazioetatik oso gertu dauden leku batzuetarako ere, neurri desberdinetakoak, ezarpen orekatu bat lortzen lagunduko duen berariazko arau-esparrurik izan gabe.

Testuinguru horretan onetsi zen azaroaren 7ko 14/2025 Foru Legea (14/2025 Foru Legea, azaroaren 7koa, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena), zeinak moratoria bat proposatzen baitu biometanizazio-instalazioei dago-kienez, plangintza publikoko tresna bat eduki ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitatearen erreali-tatera egokitutako arau-esparru batean oinarritua.

Arau horretan, departamentuarterko batzorde tekniko baten eraketa xedatu zen, zeina osatuko baitute landa-garapeneko, lurralde-kohesioko, industriako, eraldaketa ekologikoko eta osasuneko arloetan eskumena duten departamentuen ordezkariak. Haren egitekoak izanen dira egoerari buruzko txosten bateratu bat ematea, bai eta gomen-dioen dokumentu bat ere, plangintza orekatua, jasangarria, teknikoki zorrotza eta parte-hartze instituzionala eta herritarrena duena bermatze aldera. Batzorde hori lanean aritu da, eta zenbait alderdi zehaztu ditu, etorkizuneko araudi-proposamenean kontuan hartu behar direnak.

Departamentuarterko batzorde tekniko horrek egindako lanarekin batera, ukitutako sektoreek aldeztutako jarrerak entzuteko prozesu bat ere egin da: biometanizazioaren sektoreko enpresak, hurbilean (beren udal-barrutietan zein horietatik kanpo) ezarritako ekimenak dituzten toki-erakundeak, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea, gai honen inguruan antolatutako auzokide-elkarteak eta talde ekologistak. Horrek guztiak agerian utzi du arau-esparru zorrotz bat behar dela, modua emanen duena gizarte osoaren eskariak modu argi eta sistematikoa bateratzeko.

Egindako eskarien zati handi batek arreata jartzen du jarduera lurraldean ezartzeko fase giltzarrian, haren dimentsionamenduan eta distantziak eta eskakizun teknikoak zehazteko beharrean, balizko eraginak minimizatze aldera, eta ingurumenean eta ezartzen den lurraldean inpaktu positiboa bermatze aldera. Gaur egun, zenbait azterlan daude abian, modua emanen dutenak hartu beharreko erabaki horiek modu objektiboan oinarritzeko, eta alderdi espezifikoko kontuan hartzeko, hala nola paisaian

duten eragina eta sarbideak, trafiko astunari buruzko gogoeta berariazkoekin.

Kargen eta onuren oreka sendotuko duten neurriak antolatzea, batez ere mugakide diren toki-entitateei eragiten ahal dieten ezarpenetan. Indarreko arau-esparruaren baitan aztertu beharreko alderdia da hori.

Parte hartzeko prozedurak sendotzea lurraldean, kalitatezko informazioa emanez, administrazio eskudunak proiektuaren onargarritasunari buruzko aurretiko egiaztapenak eginez, eta partaidetzazko prozesu indartu bat eginez lurraldean, espedientearen izapidetze arruntaren aurretiko eskakizun gisa.

Instalazio horien eraikuntza-baldintza zehatzen arauketa, instalazioaren elementu desberdinena.

Bai ezarpen-unean, bai jarduera garatzen den bitartean, neurriak ezartzea, instalazioaren hasierako faseetan eta baimendutako jardueraren aldaketan bidez ez dadin jarduera urrundu hasieran baimendutako jardueratik.

Nafarroan etorkizunean ezarriko diren biometanizazio-instalazioen funtzionamendu-fasean hausnartu beharreko beste alderdi giltzarri bat da kontrol eta bermeekin lotutakoa; hondakinen jatorria eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema zorrotzak bermatu behar dira, eta inguruko biztanleriari eragiten zaizkion inpaktuak minimizatu, arreata berezia jarrita usain-sorrerarekin lotutako gaietan, besteak beste.

Eratortitako digestoak kontrolatzeko prozedura; analitikak eta aplikazio-metodoak, Nafarroako Foru Komunitatean digesto-balorizazioa aurreikus-ten duten biometanizazio-instalazio guztietarako. Horrek esan nahi du aplikazio-irizpide horien mende egon beharko lirakekeela hala Nafarroan nola Nafarroatik kanpo kokaturik dauden instalazioak.

Azkenik, digestoak aplikatzen zaizkien lurzoru-ruen bilakaeraren gaineko jarraipen eta kontrol bat ezarri beharra.

Hori dela-eta, baldin eta xedea bada kalitatezko araubide bat edukitzea, detektaturiko zertelada guztiak landuko dituen eta modua emanen duena bermeak emateko Foru Komunitateari, toki-entitateei, biometanizazioaren sektoreari, nekazaritza- elikagaien eta abeltzaintzaren sektoreari eta, oro har, gizarteari, beharrezkotzat jotzen da 14/2025 Foru Legearen bitartez onetsitako moratoria luzatzea, arlo honen gaineko parte-hartze prozesu zabala aurrera eramateko modua emanen duena, adostasunik handiena erdieste eta araupetze zorrotza faboratze aldera.

Moratoria horren aplikazioa eta ulermena errazte aldera, testu bategin berri bat proposatzen da, zeinak, nahiz eta ez duen betekizun edo murriztapen berririk ekartzen gaur den egunean kautelazko etendurapean dauden instalazioentzat, bai du luzatzen, ordea, moratoriaren aplikazio-denbora.

Berariaz zehazten da aipatu moratoriak ukiturikoak direla, soil-soilik, kanpokoek sorturiko hondakin organikoen, nekazaritzako elikagaien alorrekoen eta/edo abeltzaintza gorozkien kudeaketarako biometanizazio-instalazioak, eta moratoriatik kanpo geratzen direla urteko 25.000 tona baino gutxiagoko ahalmena duten autogestiozko biometanizazio-instalazioak.

Gainera, moratoria hedatzen da kanpo-kudeaketazko hondakin organiko, nekazaritzako elikagaien alorreko eta/edo abeltzaintza-gorozkien biometanizazio-instalazio guztietara, urteko 100.000 tona baino gehiagoko ahalmena izanik, 2026ko uztailearen 15ean baimentze-fasean daudenetara, zertarako eta, horrela, berdintasun-printzipioa bermatzeko, halako moduz non Nafarroan paratuak izatekoak diren biometanizazio-instalazio guztiek betekizun-maila berari erantzuten baitiote, halako moldez non ez baita salbuespenezko egoerarik gertatuko, eragina izanen duenik proiektuaren kalitatean, ezarpen-betekizunetan eta haiei aplikatzekoak diren kontroletan, eta babes-maila berbera bermatuko baita Nafarroako biztanleria guztiarentzat.

Horregatik guztiagatik, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen aldaketa hau proposatzen da:

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen zortzigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Biometanizazio-instalazioetarako moratoriaren luzapena.

1. 2025eko azaroaren 14tik 2028ko abenduaren 31ra arte, ezein administrazio publiko eskudunek ez du izapidetzera onartuko biometanizazio anaerobikoko halako instalazioetarako proiektu

berririk, zeinen jarduera baita instalaziotik kanpoko beste instalazio batek sorturiko hondakin organikoen, nekazaritzako elikagaien alorrekoen eta/edo abeltzaintza-gorozkien kudeaketa.

2. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpezez 2026ko uztailearen 15ean kautelazko etenduran dauden baimentze-espeditenteak, biometanizazio-instalazioetarakoak direnak, etendurapean mantenduko dira aipatu ebazpena erakarri zuten baldintza beretan, salbu eta etendura-epeari dagokionez, zeina 2028ko abenduaren 31ra arte luzatzen baita.

3. Biometanizazio anaerobikoko halako instalazioak, zeinen jarduera baita kanpo-instalazioek sorturiko hondakin organikoen, nekazaritzako elikagaien alorrekoen eta/edo abeltzaintza-gorozkien kudeaketa, 100.000 tona baino gehiagoko urteko kudeatze-ahalmena izanik eta 2026ko uztailearen 15ean baimentze-fasean egonik, kautelaz etenak izanen dira 2028ko abenduaren 31ra arte.

4. Moratoria honetatik kanpo uzten dira:

a) Autogestiozkoak diren biometanizazio anaerobikoko instalazioak, urteko 25.000 tona baino gutxiagoko kudeatze-ahalmena dutenak.

b) Kudeaketa publikokoak diren biometanizazio anaerobikoko instalazioak, beste eskumen-esparru batzuen osagarriak diren prozesuei erantzuten dietenak, hala nola hondakin organikoen bosgarren edukiontzitik datozen etxeko hondakinen udal-kudeaketakoak eta hiri hondakin-uren arazketa, baldin eta instalazio horietan egitekoa den jarduera mugatzen bada bere jardueran bertan sorturiko hondakinen kudeaketara, zein ere den horiek sortu diren puntua.

5. Moratoria honen indarraldia amaituko da biometanizazio-instalazioen ezarpen, jarraipen eta kontrolari buruzko foru-araudi berriak indarra hartzen duen unean, edo aurreikusitako 2028ko abenduaren 31ko epea betetzen denean”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



